CIC biomaGUNE
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

PRENTSA-OHARRA

CIC biomaGUNEk 20 urte bete ditu biomaterialen ikerketaren abangoardian

Euskal ikerketa-zentroak, zeinak nazioarteko aitorpena baitu, hogeigarren urteurrena ospatu du gaur, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzako zuzendaria, Gipuzkoako diputatu nagusia eta Donostiako alkatea bertan direla

CIC biomaGUNEko ordezkariek nabarmendu dute zentroak nazioarteko talentua erakartzeko eta puntako ezagutza soluzio bihurtzeko gaitasuna duela, osasunaren arloko gaur egungo erronkei erantzuteko

Donostia, 2026ko azaroaren 12a. CIC biomaGUNEk 20. urteurrena ospatu du gaur Donostiako Miramar jauregian, Jon Insausti Donostiako alkatea, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia, Maialen Agirre Pinedo Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzako zuzendaria eta Fernando Cossío Ikerbasqueko zuzendari zientifikoa bertan direla. Ekitaldian, CIC biomaGUNE bere arloko erreferentziazko zentro gisa sendotu izanak sortzen duen harrotasuna elkarrekin ospatzeko aukera izan dute. Baina, horrez gain, ikerketa-zentroak eta zientziak oro har etorkizunean izango dituzten erronkei buruz hausnartzeko gonbidapena ere izan da.

Irekiera-ekitaldian, José M. Mato doktoreak, CIC biomaGUNEko zuzendari nagusiak, honako hau adierazi du: «Bi hamarkada hauetan, CIC biomaGUNE nazioartean aitortutako bikaintasun zientifikoko zentro bihurtu da. Ikertzaile nabarmenak erakarri ditu, ekarpen zientifiko garrantzitsuak egin ditu, ikerketarako aparteko azpiegiturak garatu ditu, eta biomaterialen, nanoteknologiaren eta irudi molekularraren arloko erreferente gisa sendotu da».

Hogei urte hauetan, zentroko komunitate zientifikoak 2.000 ikerketa-artikulu baino gehiago argitaratu ditu eragin handiko aldizkarietan; 125 doktorego-tesi egin dira, eta gaur egun beste 87 tesi daude martxan. Era berean, CIC biomaGUNEk 40 patente eskatu ditu, eta 5 spin-off enpresa sortzen parte hartu du: MD-Renal, Asparia Glycomics, Hylezitek, Taldeki eta Onkoreplica. Zentroak urtean 160 proiektutan lan egiten du batez beste; horien artean, Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) 13 dirulaguntza ospetsu nabarmendu behar dira.

«Baina, agian —gaineratu du Matok—, gure lorpenik handiena ezin da neurtu argitalpenen, aipamenen, patenteen edo aitortza zientifikoaren bidez soilik. Lorpenik handiena da nortasun propioa duen erakunde bat eraiki dugula, bikaintasun zientifikoan, askatasun intelektualean eta lankidetzan oinarritutako kultura duen erakunde bat, eta, batez ere, zientzialarien belaunaldi berriak erakartzeko eta prestatzeko gaitasuna duen erakunde bat».

Aitziber L. Cortajarena doktoreak, CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoak, azpimarratu du lorpen horien guztien atzean CIC biomaGUNEtik igaro diren eta gaur egun zentroan lan egiten duten pertsonen lana dagoela: «Mundu osoko talentua da, elkarlanean diharduena biomaterialen arloan puntako ezagutza sortzeko eta ezagutza hori osasunaren arloko gaur egungo erronkei erantzuteko soluzio bihurtzeko».

Informazio gehiago:
Elhuyar Komunikazio-zerbitzuak
Alaitz Imaz
747 400 121

Hedapena

«Ikerketa-zentroak sortu zenetik sendotu den arte igaro dituen etapa guztiak, hazkundea, nazioartekotzea eta CIC biomaGUNEk duen azpiegitura zientifiko handia» nabarmendu ditu Cortajarenak. Oinarrizko ikerketaren arloan nazioarteko erreferente gisa sendotu ondoren, zentroak beste aurrerapauso bat eman du «bikaintasuneko zientzia hori indartzeko eta, ezagutzaren transferentziaren bidez, gizartean eragina izatea lortzeko. Gure ikerketa eremu klinikora eramatea eta osasunaren arloko erronka handiei soluzio terapeutikoak eta diagnostikoak ematea da asmoa, baita enpresa berriak sortzea ere».

Ikerbasqueko irakasleak zentroaren estrategia zientifikoa azaldu du: «Programa gero eta diziplinartekoagoak eta integralagoak ditugu nanomaterial biofuntzionalen, bioingeniaritza sintetikoaren eta irudi molekular eta funtzionalaren inguruan egituratuta». Izan ere, Donostiako ikerketa-zentroak hedapen-plan bat jarri du abian, «laborategi eta ekipamendu berriekin, eta konputazioaren, adimen artifizialaren eta automatizazioaren arloko gaitasun berriekin, aurkikuntzak eta horien transferentzia bizkortu ahal izateko».

Ondoren, ekitaldian izan diren agintariek hartu dute hitza. Jon Insausti izan da lehena: «Bi hamarkada hauetan, CIC biomaGUNE bikaintasuneko ikerketa-zentro bat baino askoz gehiago izan da. Ekarpen erabakigarria egin du Donostia zientziaren, ezagutzaren eta berrikuntzaren alde egiten duen hiri gisa ikusteko eta sendotzeko, horiek aurrerapenaren eragiletzat hartuta». Era berean, Donostiako alkateak honako hau nabarmendu du: «Ikertzaileen lanari esker, Donostiak indartu egin du nazioarteko zientziaren mapan duen posizioa, baina, aldi berean, barrura begirako ikuspegia ere sendotu du; alegia, herritarrengandik hurbil dagoen, irekia den eta herritarrekin partekatzen den kultura zientifikoarena. Izan ere, ikerketak bere baliorik handiena hartzen du laborategietatik harago joaten denean eta pertsonen bizitza hobetzen duten soluzioak sortzen dituenean, osasunaren arloko aurrerapen berrien bidez nahiz gure ongizatean eta gizarte-garapenean eragina duten teknologien bidez».

Bere aldetik, Maialen Agirre Pinedo Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza zuzendariak adierazi duenez, «ezagutza, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alde zenbait hamarkadatan herri gisa egindako apustu baten parte da CIC biomaGUNE. Euskadiko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-ekosistemaren eraikuntzaren historiaren parte da». Eta atzera begira, etorkizunari buruz hausnartu du Agirre Pinedok: «Duela hogei urte hartutako erabaki askori esker ari gara gaur gu hemen ospakizun honetan. Eta orain hartuko ditugun erabakiek lagunduko digute hemendik beste hogei urtera zer ospatzen aritu gaitezkeen definitzen. Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak CIC biomaGUNEren bidelagun izan nahi du ibilbide horretan». Izan ere, «CIC biomaGUNEren hogei urteek erakusten dute herri gisa garatzen diren zientzia- eta berrikuntza-proiektuek denbora, konfiantza eta jarraitutasuna behar dutela», esanez amaitu du.

Azkenik, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak zorionak eman dizkie «lanaren eta ikerketarekiko konpromisoaren bidez» CIC biomaGUNE lurralde eta herrialde osora «ezagutza aurreratua eta zientzia zabaltzen dituen benetako itsasargi» bihurtu duten eta bihurtzen jarraitzen duten pertsona guztiei. Adierazi duenez, urte hauetan CIC biomaGUNE «funtsezko eragile» bihurtu da lurraldeko Zientzia eta

Informazio gehiago:
Elhuyar Komunikazio-zerbitzuak
Alaitz Imaz
747 400 121

Teknologia Sarean, eta, bereziki, biozientzien eta terapia aurreratuen arloan; izan ere, Gipuzkoako erakundeek etorkizunerako finkatutako «sektore estrategikoetako» bat da. «Lurralde gisa ezarri ditugun lehentasunetako bat da etorkizunean ekonomia eta kalitatezko lanpostuak sortuko dituzten eta gure gizartearen ongizateari lagunduko dioten arloak garatzen eta indartzen jarraitzea. Horretarako, ezinbestekoa da bikaintasuneko zentro zientifikoak izatea, hala nola CIC biomaGUNE. Zuen ibilbideak eta ezartzen dituzuen helburuak lortzeak ezagutza gehiago, talentu gehiago, aurrerapen gehiago eta, beraz, gipuzkoarrentzako ongizate handiagoa ekarriko ditu», ziurtatu du.

Irekiera-ekitaldiaren ondoren, puntako zientziari, gizartean eragina izateko ezagutza transferitzeari eta talentuaren funtsezko zereginari buruzko mahai-inguru batekin jarraitu du ekitaldiak. Horren ondoren, CIC biomaGUNEn prestatu eta beren ibilbide zientifikoa zentrotik kanpo jarraitu duten pertsonek hainbat hitzaldi eman dituzte.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerkuntza Kooperatiboko Ikerkuntza Zentroa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kide eta irabazi-asmorik gabeko ikerketa-zentro bat da, Donostian kokatua, kimikaren, biologiaren eta fisikaren arteko interfazean abangoardiako ikerkuntzan jarduten duena, arreta berezia eskainiz maila molekularreko nanoegitura biologikoen propietateen eta haien aplikazio biomedikoen azterketari. 2018an, «María de Maeztu» Bikaintasun Unitate gisa aitortu zuten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, hau da, inpaktu eta lehiakortasun-maila handia izateagatik bere jarduera-eremuan, munduko agertoki zientifikoan.

Argazki-oina: Ezker-eskuin, Unai Andueza Iraeta (Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako foru diputatua), Anna Llanes Pallas (CIC biomaGUNEko kudeatzaile nagusia), Aitziber L. Cortajarena (CIC biomaGUNEko zientzia-zuendaria), Jon Insausti Maisterrena (Donostiako alkatea), Eider Mendoza Larrañaga (Gipuzkoako diputatu nagusia), Maialen Agirre Pinedo (Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzako zuzendaria), Ane Oyarbide Ochoa (Berdintasuneko, Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzia Donostiako Udalean) eta Jose M. Mato (CIC biomaGUNEko zuzendari nagusia).

Informazio gehiago:
Elhuyar Komunikazio-zerbitzuak
Alaitz Imaz
747 400 121